

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteei aisialdirako zuzendutako urteko jarduera programen eta materialerako 2021eko deialdia

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2016ko apirilaren 15ean, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2016ko maiatzaren 4ko ALHAO, 50. zenbakia).

Gazteei aisialdirako zuzendutako urteko jarduera programen eta materialerako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2020ko abenduaren 18ko bileran onartutakoa, aipatutako oinarri arautzaile orokorrei eta ondoko ataletan ezarritakoari lotuko zaie.

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea hau da: dirulaguntzak ematea gauzatzen laguntzeko gazte edo astialdi elkarte edo erakundeek sustaturik 2020/2021 ikasturtean zehar era jarraituan egingo diren astialdiko jarduera mutiko-neskato eta gazteentzakoak, baita erakunde onuradunen jarduerak antolatzeko, zabaltzeko eta abian jartzeko prozesuak errazteko ezinbesteko materiala erosteko dirulaguntzak ematea ere.

Jarduerak astialdian egingo dira, astialdia harturik berdintasun, elkartasun eta tolerantzia balioak sustatzen dituen aisiarako eta hezkuntzarako denboratzat. Halaber begirale talde egokia izan beharko dute jarduera horiek garatzeko.

Astialdia aukeraz beteriko espazioa da hezkuntzako elkartegintzan antolatutako jardueretan parte hartzen duten neska-mutilentzat.

Era horretako elkartegintzak aukera ematen die parte hartzaileei beren prozesuko protagonista izan daitezen, eta nortasun pertsonala eta soziala eraikitzen laguntzen die; eta, horrekin batera, beste balio batzuk ere bultzatzen dira, besteak beste elkartasuna, berdintasuna eta parte hartzea, ekintzaren bitartez.

Begirale gehienak gazteak eta boluntarioak izan ohi dira, eta funtsezko lana egiten dute, zeinari denbora luzea eta ahalegin handia eskaintzen dioten.

2. Erakunde onuradunak

Gazte elkarteak, astialdiko elkarteak edo aurrekoak koordinatzen dituzten federazioak, erregelamenduz eratuak eta irabazteko xederik gabeak, Araban edo Trebiñuko Konderrian baldin badute beren goitza edo ordezkaritza.

Gazteriaren Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako hirugarren klausulan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak baztertu egingo dira.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira 2020/2021 ikasturtean zehar antolatzen diren astialdiko jarduerak eta materiala eskuratzeko gastuak, ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

3.1. Urteko programa

3.1.1. Diruz lagundu daitezkeen programak:

Era jarraituan (hamabostaldian behin gutxienez) garatzen diren jarduera programak, gutxienez bost hilabete irauten dutenak. Jarduera programa sei hilabete edo gehiagotan egiten

bada, jarraitutasun falta egon daiteke. Elkarteen federazioak salbuetsita daude denbora eta jarraitutasun baldintza betetzetik. COVID-19 bidezko pandemia dela eta, Balorazio Batzordeak jarraitutasun salbuespena baloratu ahal izango du.

Parte-hartzaileen adina 7 urte edo gehiago izango da.

Aipatutako jarduerak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu behar dute, balioen aldaketa sustatuz eta gizarte rolak eta sexu estereotipoak deuseztatuz.

3.1.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagundu ahal izango dira astialdiko jarduerak jarraituki antolatu eta burutzetik sortzen diren gastuak.

2. Diruz lagunduko dira jardueren gastuak, aseguruaren kostua, alokairuak eta lokalen erabilera kuotak, telefono, garraio, langile eta material ez-suntsikorren gastuak, eta jarduera burutzearen zuzeneko ondorioetatik har daitezkeen beste guztiak.

3. Kontratutako langileen gastuak bakar-bakarrik diruz lagundu ahal izango dira proiektua garatzeko beharrezko lana egiten duten pertsonak baldin badira. Federazio koordinatzaileek koordinazioko eta/edo erakundearen idazkaritza teknikoko langileen gastuak barne hartu ahal izango dituzte.

4. Joan-etorrien gastuak garraio publikoko txarteletan edo joan-etorrien gastuen ziurtagiriarekin frogatuko dira. Kilometro bakoitzeko 0,29 euro kontatuko da. Ez da onartuko erregai fakturarik.

5. Jarduerak egiteko beharrezkoa den material ez-suntsikorra eskuratzeko diruz lagundu daitezkeen gehieneko kopurua 2.500 euro izango da.

3.2. Materiala

3.2.1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Ekipamendu informatikoak, kanpamenduetarako beharrezkoak diren elementuak, ikus-entzunezko materiala eta jarduera garatzeko beharrezkoak diren bestelako materialak, 2021ean eskuratuak.

2. Aurreko puntuan aipatutako materialari dagokionez, diruz lagunduko dira gehienez ere 3 unitate, bakoitza 80 euro baino gehiagokoa bada. Unitate bakoitzaren kostua, gehienez, mila eta berrehun euro izango da (1.200,00). Pack-ak edo kit-ak zatiezina badira bakarrik lagunduko dira diruz.

4. Diruz lagunduko ez diren gastuak

4.1. Urteko programa

Material gastuak, udalekuak, kanpamentuak, ibilaldietako kanpamentuak edo udako auzolan-degiak, Gazteriaren Foru Erakundeak dagozkien deialdien bitartez diruz lagundu baldin baditu.

Udaleku eta udako kanpamentu, ibilaldi mugikor edo auzolandegien gastuak, nahiz eta Gazteriaren Foru Erakundeak diruz ez lagundu.

Ondasun higiezinak eskuratu, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

4.2. Materiala

Materiala erosten den lekutik entregatzen den lekura garraiatzeko gastuak.

Telebistak, telefonoak eta material informatikoa erosteko gastuak.

Ondasun higiezinak eskuratu, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

5. Eskaerak aurkeztea

5.1. Eskaerak hogeit hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>; horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute alde aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo EZAGUTU EGOITZA – ‘Nola sartu’ izeneko atalera.

5.2. Erakunde eskatzaileak AFAREN egoitza elektronikoa dagoen inprimakian eskatzen den informazioa beteko du, dokumentazio honekin batera:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia, lehenago aurkeztu ez badu.

2. Erakundearen estatutuen fotokopia, eta deialdi honen datan legez eratu eta Elkartea eta Erakundearen Erregistro egokian inskribaturik dagoela egiaztatzen duten agiriak, baita IFZren fotokopia ere. Gazteriaren Foru Erakundearen horiek lehenago aurkeztu dituzten erakundeek ez dute bete beharko aurrekoa, harez geroztik aldaketaren bat egin ez badute.

3. BEZetik salbuetsita dagoelako ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (aldez aurretik aurkeztu ez baldin bada) edo erakundeko presidente kargua doakoa delako aitortpena.

b) Agiri espezifikoak:

Urteko programa

1. Jardueren proiektua:

– Helburuak

– Plangintza eta garapena.

– Parte-hartzaileen kopurua.

– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen egiten diren jarduerak eta helburuak berariaz zehaztuko dira.

2. Hura garatzeko aurreikusitako gastuen eta diru sarreraren aurrekontu xehatua, Gazteriaren Foru Erakundearen eskainiko duen ereduaren, beste erakunde edo entitate publiko edo pribatuei egindako laguntza eskaerak eta entitatearen beraren ekarpenak azalduz.

3. Soldatapeko langileen zerrenda, zehaztuz zein lanpostu betetzen duten, zer ordutegi daukaten, kontratuaren datak zein diren, zer arduraldi daukaten eta horrek zer kostu daukan.

4. Parte-hartzaileen kopurua egiaztatzeke, eta kontuan hartuta ezinbesteko datua eta dirulaguntzarako irizpideetan balioestekoa dela, kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruaren egiten duen erakundearen emandako froga-agiri edo ziurtagiria aurkeztu beharko da, aseguraturako pertsonen kopurua zehazten duena, edo, bestela, parte-hartzaileen zerrenda, horien izena, deiturak eta adina azalduz.

5. Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko erabilgarri dauden baliabideak: begirale taldea, baliabide materialak, azpiegiturak, etab.

6. Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiriaren fotokopia, indarrean, eta polizaren fotokopia, behin bakarrik, baldintzetan edozein aldaketa egin arte.

Eskaera banakoa izango da, elkarte edo federazio bakoitzeko. Elkarteen federazio koordinatzaileek beste elkarte batzuen izenean eskabide bat baino gehiago aurkezten badituzte, ordezkari gisa jarduten duen pertsonaren datuak adierazi beharko dituzte eskabidean.

Lehen eskaturiko datuez gain elkarrekin osatzen dituzten taldeen zerrenda zehaztu bat erantsi beharko da, adieraziz zein den beren izena, IFK, eta arduradunaren izena eta bi abizenak; baita talde bakoitzaren gastuak, diru sarrerak eta defizita ere.

Materiala

Materiala erosteko beharraren justifikazioa (zehaztu non eta zertarako erabiliko den).

Jatorrizko aurrekontu eguneratua edo faktura.

Sozietatearen egoitza Araban ez daukaten erakundeek egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute (behin bakarrik aurkeztuko da, harrez geroztik aldaketarik egin ez badute), baita kasuan kasuko zerga ogasunarekin dauzkaten zerga betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen agiria.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztapenak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrak dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da hori egiaztatzea, Foru Ogasunari dagokion agiria eskatuz.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak bai oinarri orokorretan bai deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela esan nahi du.

6. Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa

Urteko programa

Helburu horretara bideratu den zuzkidura ehun eta berrogeita bost mila euroko (145.000,00) dotazioarekin, Gazteriaren Foru Erakundearen 2021eko gastu aurrekontuko aukeran jarriko den partidari egotziko zaio.

Materiala

Helburu horretara bideratu den zuzkidura hamabost mila euroko (15.000,00) dotazioarekin, Gazteriaren Foru Erakundearen 2021eko gastu aurrekontuko aukeran jarriko den partidari egotzi zaio.

Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio dirulaguntza lerro bakoitzari, betiere hamar mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebalazioa ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebalazioa emateko.

Dirulaguntza zehazteko eta zenbatekoa finkatzeko balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

Urteko programa

Aurrekontuaren ehuneko 50 elkarte eskatzaile guztien artean banatuko da, ondorengo irizpide hauek oinarri, lortutako puntuak arabera:

— Elkarte guztiei puntu bana emango zaie (horien artean, federazio koordinatzaileetan parte hartzen dutenak sartzen dira)

– Elkarte koordinadora bakoitzari bost puntu emango zaizkio. Azken horiei, gainera, barne hartzen duten elkarte bakoitzeko 0,50 puntu emango zaie.

Gainerako zenbatekoa (beste erdia), antolatutako jardueretan parte hartzen duten arabar neska-mutilen kopuruaren arabera banatuko da.

Horretarako, irizpide bakoitzari dagokion aurrekontu partidako kopurua zatitu egingo da a irizpideak eta b irizpideak, erakunde guztientzako puntuazio baremoa aplikatu ondoren, lortutako puntuaren eta partehartzaileen guztirako baturarekin, eta eragiketa horrek zehaztuko du puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, baldin eta zenbateko hori eta gainerako diru sarrerak gehitzearen emaitzak jardueraren gastua gainditzen ez badu.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa a) eta b) irizpideen kopuruen baturaren emaitza izango da.

Aurrekontuko zuzkidura agortzeko behar den beste banaketa egingo da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango eskaeran edo memorian aurkezten den diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 baino handiagoa.

Balioetsi eta gero 500 eurotara heltzen ez diren eskaerek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du guztira 7.500 euroko zenbatekoa gainditu. Federazioek ez dute atal hau bete behar.

Materiala

a) Material motaren arabera

- . Kanpamentuetarako materiala: 10 puntu
- . Ikus-entzunezko materiala: 8 puntu
- . Beharrezkoak diren beste materialak: 6 puntu

b) Ekarpen ekonomikoa, gehienez 10 puntu:

- . Ehuneko 50 edo gehiago: 10 puntu
- . Ehuneko 40 edo gehiago: 7 puntu
- . Ehuneko 35 edo gehiago: 4 puntu
- . Ehuneko 31 edo gehiago: 1 puntu
- . Ehuneko 30 edo gutxiago: 0 puntu

Puntuazioaren araberako banaketa sistema bat ezarriko da, eta horretarako, aurrekontu zuzkidura zatitu egingo da puntuazio baremoa aplikatzearen bidez erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntu guztien artean, eta horrek emango digu puntuaren balioa.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, baldin eta zenbateko hori eta gainerako diru sarrerak gehitzearen emaitzak jardueraren gastua gainditzen ez badu.

Aurrekontuko zuzkidura agortzeko behar den beste banaketa egingo da.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango eskaeran edo memorian aurkezten den diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 baino handiagoa.

7. Balorazio Batzordea eta ebazpena

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

- Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetutako pertsona.

- Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balorazio Batzordeak dirulaguntza emateko proposamen txostena egingo du.

Ez da entzunaldi izapiderik egingo, izan ere, ebazpena emateko eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak, Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatzen duen ekainaren 8ko Diputatuaren Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du bost hilabeteko gehienezko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Dirulaguntza eman ala ukatu den jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei eskaeran adierazitako helbidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen Legeak 42. artikuluan xedatzen den eran.

Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa. Lehena aurkezteko hilabete bat izango da eta bigarrena aurkezteko bi, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

8. Dirulaguntza nola ordaindu

Urteko programa

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

Ehuneko 70, dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko 30 deialdian ezarritakoa betetzen duen txostena aurkeztu eta gero. Justifikazio memoria aurkeztu ezean, aurreratutako zenbatekoa itzuliko da urriaren 19ko 11/2016, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak xedatzen den eran. Dirulaguntzak 20.000 euro baino gehiago egiten baditu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena nahitaezkoa izango da.

Materiala

Gastuak zuritutakoan, dirulaguntza dena batera ordainduko da.

9. Dirulaguntzaren justifikazioa

9.1. Urteko programa

2021eko uztailearen 1etik urriaren 8ra arte, egun hori barne, elkarte eta erakunde onuradunek deialdian diruz lagunduko diren jardueren azken memoria aurkeztuko dute egoitza elektronikoen bidez, erakundeak berak emandako ereduari; honakoak izango ditu gutxienez aipatutako memoriak:

a) Zer jarduerak egin diren, beraien egutegia, partaideak eta tokia zehaztuz, baita balorazio orokorra ere.

b) Laburpen ekonomikoa:

1) Gastuen zerrenda.

2) Gastuen eta diru sarreraren balantzea (egondako gastuak eta diru sarrerak deskribatuta)

3) Elkartearen edo dirulaguntza jaso duen erakundearen izenean eman diren jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, jarduerak egiteak sortutako gastuengatik jasotako zenbatekoa adierazita.

- Aitzitik, 400 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

- 200 euro baino gutxiagoko fakturretan, datu hauek jasoko dituen gastuen justifikazio erraztu bat egin behar izango da: data, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa data.

Gazteriaren Foru Erakundeak laginketa bidez eskatu eta egiaztatuko ditu bidezkotzat jotzen dituen frogagiriak, nahitaez aurkeztu behar ez direnak; horretarako, hautatutako gastuak bidaltzeko eskatu ahal izango da.

Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiriaren fotokopia, eguneratua, justifikazio datan indarrean ez badago.

Era berean, ez dira onartuko ordain frogagiri gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaloia atzerriko dirutan). Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagiriaren jatorrizko agiriak eskatuz gero, zigilu marka jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntza agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere.

Azken kasu horretan, dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

Diruz lagundu daitekeen gastu bezala kontuan hartuko da gizarte izaera duten erakunde edo elkarteek eskainitako zerbitzuengatik (izaera hori aitortuta eduki nahiz ez) jasandako BEZa, baldin eta egoera bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badira (BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, arau horren 20. Bat. 8. idatz zatian jasotzen den zerga salbuespena aplikatzeari begira).

Langileen gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak nahitaez aurkeztu behar dira.

Soldatapeko langileen lan egoera zehaztu beharko da, honako hau jasotzen duen taula batean: langileak, arduraldia, hilabetea, soldata likidoa, PFEZaren atxikipena, langileek Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, enpresak Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, eta guztirakoa.

Halaber, beti ere erakundeak kontratatutakoen jatorrizko nominak –edo fotokopia konpultsatuak- aurkeztu beharko dira, haiek proiektuari eratzikita dauden aldikoak. Soldatak ordaindu izanaren froga-agiri bezala, ondoko hauetako edozein onartuko da:

- Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

- Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, adierazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela, dagokion hilabeteagatik.

- Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

Aurretik esandakoaz gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzaren TC1 edo kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta TC2 edo langileen zerrenda ereduak, eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak.

Elkarteek eta erakundeek baimena berariaz emanaz gero, ez dira zertan aurkeztu hiru hilez behin aurkeztu beharreko eta jada aurkeztutako 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak eta haien ordainagiriak, ez eta 190 eredua, atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko laburpena ere.

9.2. Materiala.

Ondokoak aurkeztuko zaizkio Gazteriaren Foru Erakundeari dirulaguntza ebatzi eta bi hilabete igaro baino lehen:

Diruz lagundutako elkarte edo erakundearen izenean egindako gastuen jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, eskatutako materiala erosteagatik egindako gastuen zenbateko osoarekin.

Gastuen eta diru sarreren balantzea.

Dirulaguntzaren justifikazioan erositako materialaren zenbatekoa eskabidean aurkeztutako aurrekontukoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza dagokion zati proportzionalean murriztu egingo da.

400 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan). Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagirien jatorrizko agiriak eskatuz gero, ziguilu-marka jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntza agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere.

Azken kasu horretan dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

9.3 Halaber, dirulaguntza eman duen ebazpenak xedatutako beste edozein agiri aurkeztu beharko da.

10. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, araudian baimendutako kasuetatik kanpo dauden beste ekarpen batzuk aldi berean jasotzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, dirulaguntzaren araudian ezartzen denari jarraituz.

11. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratutako da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 18a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ